

Gizonen antzutasuna  
genetan

**A**nne Chandley eta Howard Cook zientzialari britainiarrek gidatutako talde batek Y kromosoman gizona koengan antzutasuna eragite duten hamar bat gene identifikatu dituzte. Ikerleak azoospermia edo espermatozito eza zergatik gertatzen den hobeto ulertu nahi dute, gero gizona koentzako antisorgailuak lortu ahal izateko.

Ikerketaren beste aplikazio eztabaidatsu bat genetikoki antzutasuna sendatzea litzateke, baina hori giza espeziearen ondare genetikoaren manipulatzeko eta etika dela medio ezabai da handiak sortzen dira.

## Eski nordikoa eta asma

**E**ski nordikoan, dakinunez, ibilaldi luzeak egiten dira elurretan mendian ze har. Kirol gogorra da, denbora luzez ahalegin handia egin behar delako. Eskiatzen ari den bitartean, oxigeno-premia asetzeko aire hotza ugari arnastu behar da, gorputzak energi kopuru handia gastatzen duen bitartean. Pertsona osasuntsuenzat kirol hau mesede-

garria da, noski, bere tamainan eginez gero, baina biriketarik nola-bait ibiltzen direnentzat ez da mesedegarria, asma sortzen duelako.

## Diabetikoentzako entzima

**B**retainiako Morlaix herrian EPA laborategietako biologoek, diabetikoen odoloko azukre-tasa eta kolesterol kaltegarriaren tasa jaisten duen entzima aurkitu dute. Landon eta Adeline doktoreak hamar urte igaro dituzte sistema fisiko bat prestatzen. Helburua, zekale, soia edo garian azido pikoliniko eta kromozko konplexu organikoak sortzea zen.

Intsulina, pankreasak jariatzen duen hormona naturala da eta aipatu berri dugun konplexuak organismoa aktibatu egiten du glukosa erabil dezan eta muskuluetako zeluletara zein zelula adiposotara errazago sar dadin.

Egin diren ikerketa klinikoan arabera, intsulina hartu behar duten gaixoengan egoerak okerrera egitea galarazi egiten du, eta EPA laborategietakoek argitu dutenez, orain arte erabiltzen ziren kromozko gatzak baino hiruzpalau aldiz eraginkorragoa bada, jatorriz organiko delako da.

Beste abantaila bat ere badu tratamendu berri honek. Konplexu orga-

nikoa ahotik hartuko da, eta ez da injektzio beharrik izango.

## Hilekoa izateko adina

**E**makumeek lehen aldiz hilekoa izateko adina ez da beti berdin mantendu.

Gure artean 1840. urtean batezbeste 16,5 urterekin izaten ziren eta gaur egun 12,8 urterekin. Dena den, ikerketa batek dioenez herrialde industrializatu askotan adin horrek gora egiteko joera du. Esan beharra dago gure gizartean batez ere higienaren eta elikaduran izandako aurrerapenari esker hamarkada bakoitzean adina hiruzpalau hilabete jaitsi dela. Adin hori, hain zuzen, nekaren luzera eta pisuaren arabera izaten da. Estatu Batuetan, esate baterako, batezbeste pisua 47,8 kilokoa eta luzera 1,58 metrokoa izaten dira. Adin horretan pisuak garrantzia zergatik duen

ezaguna da. Ehun adiposoak estrogeno-iturri nagusia dira, eta estrogeno-tasak gobernatu izan du metabolismoa. Neska iharrengan hain zuzen, eraginkorra ez den estrogeno-forma jakin bat sortzen da.

Azken urteotan, dena den, lehen hilekoa izateko adina atzeratzen ari da herrialde industrializatuetan, nahiz eta higienek atzera egin ez. Elikaduran eta bizio-duran ordea, aldatetarik izan dira. Neska gazteak beren "forma" eta argaitasunaz askoz ere gehiago arduratzen dira eta kiroletan ordu gehiago sartzen dituzte. Horren ondorioz, ehun adiposotako erreserbak jaitsi egiten dira. Dena den, medikuntzaren aldetik hori ez da kezkarria. Izan ere, lehen hilekoa azkar daukatenek bular-minbizia izateko arrisku handiagoa baitute.

Garai batean ez bezala, gaur egun neskek "forma" zaintzearen kiroletan gehiago aritzen dira. Argaldu eta ondorioz lehen hileko geroago izaten da.

